

uzei informa y responde (IV)

uzei-ren giza-kapitala

UZEIk zein erizpideren arabera lan egiten duela esaten genuen azkenengoan. Oraingo honetan lana nola egiten duen, zenbat jende dabilen, lankideen prestakuntza nolako den eta zertan diharduen, tikuak izan diren puntu horiek azaltzen saiatuko gaituzte. Galdera laburtu beharrez, honela laboru genezake: UZEIk zer jende dauka eta zer egiten du?

Talde-lanen koordinazioa

Talde-lana izango da behar bada UZEIren jokabidea hobekien zertzen duen elementua, bera baita, azken-azkenean, eskaintzen dugun produktioaren berrantolaketa ziurra eta gure izatearen beharra sozialki justifikatuz dezakeen froga nagusia.

Zergatik talde-lana? Erantzuna ezin errazagoa da: batetik, hiztegi berezituak espezialistek egin beharrekoak direlako eta, bestetik, horrelako lan batek, persona bakar baten ahalmenak gainditurik, talde-lana eskatzen duelako.

Oinarritzko erizpide hori kontutan harturik, hiztegi bakoitzean parte hartzen duten lankideak zientziaren alor horretan espezialista direnak eta, ahal den neurrian, euskaraz dakitenak dira. Honela, zientzi sail bakoitzean ari diren espezialistak elkarrengana biltzen direlarik, talde berezituak jarraiko helburu bikoitz hau lortzeko bidean jartzen dira: zientzia honekako lexikoa finkatu eta euskarazko material berria sortu eta, horrekin batera, normalizazio-prozesuan barneratuz beren buruak prestatu.

Talde berezituak zer bait egingo ere badira, eta hauxe bereziki: beren zientzi sailko kolektibitateko datorkien onarpen sozialaren isladak. Erabakiak gutxi batzuk eta indizientzia sozialik ez dutenak hartzen baldin badituzte, bistakoa denez, gizariek ez dituzte irensten; aldez, espezialisten talde batek hartzen baditu eta beren eguneroko lanetan erabiltzen baditu, orduan gizariek piskanaka-piskanaka bereak egingo ditu.

Zientzia desberdinen arabera sailkatutako euskara teknikoaren gizarteratzea, beraz, talde-lan berezituak beren artean eta beren inguru-

an sortzen duten dinamika sozialaren bidez duen obratuz eta orain arte penitiazinezkoak ziren ahalbide berriak gorpuztuz.

Euskal Herri osoan zehar zabalduak dauden eta lanean diharduten talde saikatuak sustatu, koordinatu, oraindik urratzeko dauden alorretan talde berriak sortzen da biltzen ahaleginduz, horixe da UZEIk egiten duena, talde desberdinen koordinatzaile den aldetik eta kanpora begira. Barrura begira, bereziki lexiko-arloan, sail desberdinetako hiztegi berezitzen emaitza kolektiboari dazkion interferentzia lexikalak detektatu eta kontrolatzea ere berari dagokio, interferentziak, zientzi sail batetik bestera, ezinbestekoak bait dira eskotan. Eta horrelakoetan guztiz baitaiezpadakoa da globalizatzen gertatzen oso begibistan edukitzea.

Hiztegiak talde-lanari esker, lankidetzaz zabal baten bides eginak dira:

Lankideak taldekoa

Fisika	14
Politika	30
Kimika	20
Psikologia	18
Ekonomia	27
Matematika	13
Teknologia Mekanikoa	8
Hizkuntzalaritza	26
Artea	27
Medikuntza	23
Filosofia	31
Literatura	23
Erlizjioa	16
Zuzenbidea	27
Botanika	27
Historia	40
Kirolak	27
Administr.-Zirkulaz	57
Banaka	9
Zoologia	1
Hirigintza-Eraikuntza	5
Geografia	1

Hiztegi, testu-liburu eta abarren idazketa eta zuzenketan parte hartu dutenak 450 lankidetik gora dira gaur egun; eta lankidetzaz ho-

rren barruan, hiztegi guztien trastera linguistikoa aztertuz, hizkuntzalari-andana batek dihardu etengabeko lanean UZEIrekin batera.

UZEI-ren profesionaltasuna

Nolabaiteko profesionalak garelako bota zaigu aurpegira. Garena gara: ez gehiago eta ez gutxiago. Eta guren pitintxo hori agertzeko lotzarik ez bait dugu, esan dezagun UZEI zer erizpidez baliatu den bere profesionalak inguratuko ordutan:

1.- Jakintza-sail batetan gaituz edo espezialista izatea

Edozein terminologia teknikoari dagokion zehaztasuna gordeko bada, behar-beharrezko gertatzen da kontzeptuen esanahi zehatzaz ongi jabeturik egotea. Eta zehaztasun hori espezialistek bakarrik eman diezagukete. Bada hiztegin-tza tekniko maila bat, maila guztiz espezifikoa dena eta espezialistari zuzenean dagokiona, eta berari bakarrik.

2.- Euskaraz jantzia izatea

Bai gaia eta bai euskara, biak ongi menderatzen dituzten lanki-

deak bilatzen ahaleginduz gara. Eta hautaketen asmatu ez badugu, ez da izan alderdikeriak itsutu gaituelako, edozein hautaketak subjektibotasuna berarekin daramalako baita.

Euskaraz jantzia baina gaian parral dagoen lankide tipikoaren kasua erabaki beharra tokatu zaigunean, espezialistari eman zaio lehentasuna, nahiz eta honek euskara ez jakin. Horrelakoetan itzulpenak egiten dira. UZEIko lankideen zerrendan euskaraz ez dakitenak ere ikusten badituzte, arazoi horrexegatik izan da.

Beste kasu batzutan, euskararen arazoa espezialistaren eta euskararaduradunaren artean konpondu da, zeren, gaian espezialista denak gaia euskaraz emateko adina ez badakira ere, euskaraz emandakoa kontrolatzeko gauza izaten bait da.

3.- Taldean lan egin eta euskal kulturaren dinamikan sartzeko gogoasun edukitzea

Honela, lanerako prest zeuden zientzia bakoitzeko espezialistak, alfabetatuak edo erdi alfabetatuak, bilatu, animatu eta lanean jarri ditugu. Idazten idatziz baizik ikasten

ez den bezala, gai teknikoak buruz euskaraz idatziz baizik ez da ikastena.

Taldeko lan-prozedura erabat premiazkotzat daukagu, talde-lagunen jakiteak elkarren osagarri izan daitezten eta instituzioaren zerbituz ere (lexikografia, etab.) hobeki baliatuzko modua egon dadin.

Hiru erizpide horien arabera osaturiko UZEI kolektiboaren emaitzak oraindik heldugabeak baldin badira —eta gure hiztegiak behin-behinekoak direla diogunean horixe aitortu nahi dugu funtsean—, euskal kulturaren gaurko egoerak giza-kapital gaituagorik eskaintzen ez duelako izango da eta ez agian, aditza eman zaigun bezala, langabezia leudekeen peioik UZEIren lan-kalitatea mermatu dutelako. Hala ere, eta hau ere esan beharra dago, UZEIk bere lana hobetu lezake, baldin jadanik programaturik daukan plangintza zabalera atek irekiko baliatuz, horrela gure barruko autokritikei erantzuteko medioak ematek, noski.

Lanen originaltasuna

UZEI ituztzaile-fabrika dela idatzi da. Ez dakigu zein iturrutan oinarriturik dagoen esan hori, egia oso bestelakoa bait da. UZEIren hiztegiak zein neurrian diren originalak, ondoko datuok frogatzen dute hobekienik.

Taula horretan jadanik argitaraturik eta bukatutik dauden hiztegi-tako datuak bakarrik biltzen dira, guztia 11 hiztegitakoak, nahiz lantzen eta egin-asotan daudenak gehiago izan.

Hamaika hiztegi horietako testu-masa 5.781,5 orrialdekoa da, eta berorren idazketan parte hartu duten 197 lankidetatik 174ek beren artikulak euskaraz idatzirik bidali dituzte eta 23k bakarrik erdaraz. Hori bera portzentaitan emanda: %88,32 euskaraz idatzia izan da eta %11,67 erdaraz.

UZEIko lankide gehienek, beraz, euskaraz idatzi dute. Itzulpenari uzten zaion lekua oso murriztu da eta, erizpidez hitzegiterakoan esan denantzat hartzen bada, justifikatua.

UZEIko langileak

UZEIko hiztegien euskarazko testua eta euskaratua

HIZTEGIA	Orri		Autoreak	
	idatziak	Euskaraz	Erdaraz	Guztira
Fisika (argit.)	378,0	13	—	13
Kimika (argit.)	379,5	21	—	21
Ekonomia (argit.)	396,5	12	5	17
Politika (argit.)	819,0	24	4	28
Psikologia (argit.)	431,0	9	5	14
Hizkuntzalaritza (buk.)	472,0	14	3	17
Teknologia mekanikoa (buk.)	683,5	6	—	6
Matematika (buk.)	516,0	11	—	11
Medikuntza (buk.)	575,5	23	—	23
Arte (buk.)	417,5	20	6	26
Filosofia (buk.)	713,0	21	—	21
<b>5.781,5</b>	<b>174</b>	<b>23</b>	<b>197</b>	
		<b>%88,32</b>	<b>%11,67</b>	

colaboración

nemesio etxaniz

Oraintxe jakin dut Nemesio Etxaniz hil dela. Eta benetan senditu dut. Lorogetian sartua zen gure don Nemesio, jakina; eta berria oso harrizkoa ez da. Baina euskaltzale on eta kementsu bat galdu dugu.

"Ez dakit, ez dakit zer ari zaren", esan zidan orain dela hilabete batzuk. "Ez dakit Batua famatu hori ez ote den azkenean kaltegarri izango". Ongi dakit hizkuntzaren arloan, eta politikaren aldetik ere, nondik nora zebilen don Nemesio azken bolara honetan.

Baina don Nemesio euskaltzalea eta abertzalea zen errotik. Ez orain bakarrik. Don Nemesio aurpegia eman zuen behin eta berriz urterik gogorretan. Eta esperantza oso galduta zegoen urteetan, amodiozko kantak asmatzen (eta berak kantatzen ere) hasi zen; gerozko urteetan ezagutu dugun euskal kanta berriaren aintzindari agertuz.

Prentsa bidez gobernariaren jokabideak salatuzko ez zen sekula beldur izan don Nemesio; eta abertzaletasunak eskatu zionean, base-ritar itxura hartu (ez zuen eruz diximulatu behar izan, nik uste) eta mugaz bestaldera pasa zen; ez dakit zenbat aldiz. Bestek bada-kike.

"Euskararentzat bizi duk", esan zidan behin Antsolak, biok Bilbon ikasten ari ginelarik. "Donostiariak bizitzera, eta hor laguntzaile seguru bat izango duk". Eta halaxe

izan zen; baita Diputazioan orain dela 24 urte ematen nituen eskolotara ("Batua"ren oinarriak bilatu nahiz, hain zuzen!) Don Nemesio ikasle zintzo eta saiatu gisa etortzen zenean.

Eta mila alderditan nire irakasle irmo izan zitekeenak harrizten ninduen: "Benetan: nik Mattin eta Xalbador ez ditut konprenitzen"... Eta egia omen zen. Horra hor azpeitiar huts bat.

Gure bizikiak bataiatzeko proposatu nion 1959-an; nik euskaraz bataiatu nahi bainituen. "Euskaraz naiz —erantzun zidan, aspaldi honetan ez baitut bataiorik egin". Don Nemesio, jakina, abertzale "gorria" nonbait, eliz-lanetatik bazterturik bizi zen. Eta edozein apez-piku hestu lotsatzeko moduan, liburuan puntuz puntu zer egin beharzuen irakurriz, bataiatu egin zituen azkenean.

Horrelakoa zen Don Nemesio. Eta, zinez, ez zeuden dozenaka garai hartan. Adiskideari eta abertzale suharrari, agur t'ardi.

TXILLARDEGI

carlos, la tortura y napoleón

Cuando hace muy pocos días Carlos Garaikoetxea afirmó no tener constancia de que en Euskadi se practica la tortura nos dejó per-

plejos. ¿Cómo negar algo tan evidente? ¿a quién saca la cara el lehendakari vasco? ¿se puede ser tan cínico cuando incluso militantes de base del PNV han sufrido en propia carne la tortura en tiempos de reforma política? No lo entendíamos, sinceramente. Pero he aquí, que solo unos días después el propio Partido Nacionalista Vasco nos ha dado la clave que explica todas nuestras dudas: en la reunión de la Unión Mundial Democristiana celebrada el día 19 en Italia, el PNV por medio de Xabier Arzaillus ha dado su apoyo a la Junta criminal salvadoreña que preside del demócrata-cristiano Napoleón Duarte. ¿Quién da mas?

Si el PNV apoya a un régimen fascista como el salvadoreño, cuyo Gobierno comete salvajes crímenes, decapita por cientos a mujeres, ancianos y niños, arrasa poblados enteros de campesinos y mata a los curas progresistas, ¿qué tiene de particular que su lehendakari afirme no tener constancia de que en Euskadi se produzcan torturas?

Iosu PERALES

la tala de un árbol

Ante la celebración del día del árbol, queremos poner en conocimiento de los lectores un hecho acaecido el día 11 de febrero en el grupo Ibaeta, situado en la Avda. Tolosa.

El hecho en cuestión no es otro que la tala de un cedro, de 25 a 30 años de edad, que era la admiración de propios y extraños.

Un grupo de vecinos decidieron su derribo aduciendo las siguientes razones:

- Quitarles luz.
- Ser portador de piojos y pulgas.
- Ser causante del insomnio en ciertas personas, debido al ruido que producía cuando hacía viento.
- Poder afectar a los cimientos de una edificación.

Pensamos que de las razones enumeradas la única que tiene cierta consistencia es la primera;

ahora bien, creemos que se podía haber solucionado el problema sin llegar a extremos tan drásticos, pudiendo las ramas que molestaban, cosa que ya se ha hecho en otras ocasiones.

En estos barrios periféricos donde no brillan por su abundancia los árboles, hechos como el mencionado van en contra del sentido común.

Atentamente se despiden, rogando la publicación de esta carta en el periódico de su digna dirección:

L. J. Herrero y M. UGARTE

